




IZARRA  
ANTZERKI-  
SALLA



19'g. zenbakia



A. ZABALA

PERIYAREN  
ZALAPARTAK

ANTZERKI IRITSUA

DONOSTIA'N  
MARTIN ETA MENA'REN ETXEBAN  
San Marcial, 23, beko gelan

1926



Agirretan, J

ATV

31394







H- 72332  
F- 74289

AV  
31394




# PERIYAREN ZALAPARTAK









# PERIYAREN ZALAPARTAK



## IRUDIGIĒAK

Mikela	*	Mofoia
Joxe		Joxe-Mari
Patxiko		Lapuŕa
Permin		Zeladoria
Manuel		Mutilak
Anton		Baseŕitarak
Migel	*	

Peria egiten dan toki-inguruko zelai bat. Ezkefetara, jatetxe bat, eta ate-aufean maia; maian, jaten, Joxe, Patxiko, Permin eta Manuel. Inguruan, ogi-gañean jaritako lukainka jaten, jaietan bezela jantzitako muti-sail bat. Alde batetik bestera baseŕitarak, atxur, aizkora, sega ta perian erositako beste gauza batzuek eskuetan dituztela.

## I

### JOXE, PATXIKO, PERMIN, MANUEL, MUTIL ta BASEŔITARAK

MUT. (Kantatzen eta saltoka)

Santo Tomas'ko peria  
txorixua ta ogia;  
lapuŕak ere badabiltz-eta  
ondo iriki begia.

BAS. I (Kantatuaz)

Makalau igarŕtxo au  
kapoyaren truke;  
gauf gure biajea  
ez da irten mefke.



Geyago eman beafik  
jai! ez balegoke,  
urtea nolerebait  
pasako genduke

MUT. (Len bezela)

Santo Tomas'ko peria  
txorixua ta ogia;  
lapufak ere badabiltz-eta  
ondo iriki begia.

BAS II. (Beste baseñitar batek, kantatuaz)

Kapoyakin batean  
dirua ugari  
eman diogu beintzat  
nagusi jaunari.  
Ori softu danean  
kontentu nago ni;  
orain ekin befiro  
gogoz luñ-lanari.

MUT.

Santo Tomas'ko peria  
txorixua ta ogia;  
lapufak ere badabiltz-eta  
ondo iriki begia.

BAS III. (Beste baseñitar batek)

-Santo Tomas'ko eguna  
da egun aundia,  
onera etortzeko  
egun egokia.  
Nagusiaren bizkañ  
egin bazkaria,  
eta etxera apaltzeko  
bixigu guria.

MUT. (Beti bezela kantatuaz izkutatu bitez)

Santo Tomas'ko peria  
txorixua ta ogia;  
lapufak ere badabiltz-eta  
ondo iriki begia.



## LENGUAK eta MOROIA

- MOŖ. (Jaki batekin ageŕtu bedi ta mai-gañean jaŕi beza).
- JOXE. ¿Orain zeŕ dakaŕtzu?
- MOŖ. ¿Orain? Ate bat, labian eŕia.... Mokadu gozoagorik zuen bizi guzian ez dezute jan.
- JOXE. ¡Ola, ola! Atea beraz, ¿e? (Patxiko'ri) ¿Zuk iñoiz aterik jan al dezu?
- PATX. Nere etxeko atariak bi ate dauzka, eta ez bata ta ez bestia jateko ez dira gauza.
- JOXE. Onek oŕdea....
- PATX. Onek etzeukak itxura txarã ta jan egin beaŕko. (Guziok atari begira, nola jaten asi ez dakite).
- JOXE. Jaten asi beaŕko diau, ba.
- MANU. Bai. Jateko ekaŕiko ziaten noski, ez oni begira egoteko.
- PATX. ¿Eta au nola jaten da? (Kutxara aŕtuaz).
- PER. Kutxararekin ez gizona. ¿Baba-zopak dirala iduritzen al zaizu?
- PATX. Nolabait asi beaŕko degu beñepein. Tira, zuk anka batetik eta nik bestetik elduta, zeŕbait iŕtengo da.
- MANU. Ez gizona, oŕla ez.
- PER. ¿Nola ba, bestela?
- PATX. ¿Oraindik atea nola puskatzen dan ez dakizute? Aizkorarekin, gizona, aizkorarekin.
- PER. ¿Aizkora? Ona emen gauŕ erosi dedana. (Aŕtuaz).
- MANU. Ken ari oŕtik.... Ia Joxe: i gu baño geigo ibilia ta ikusia aiz, eta ia asmatzen dekan au nola ebaki.
- JOXE. Ia ba ia, labaña zoŕotz bat. (Eman bezaiote. Aŕtu ta asi bedi kisk eta kask, alde batetik eta bestetik atea ebaki eziñik. Izeŕditan asi balitz bezela, txamara kendu beza, ta beŕiz ere asi bedi, ekin eta ekin, ateari kutxila saŕtu naiaz). ¿Zeŕ aŕayo dek au? Au ez dek atea.... Inpeŕnutik eŕtendako deabŕu zaŕen bat dek au.... (Guziok, tenedoreak eskuetan dituztela, Joxe'k noiz ebakiko zai daude begira). Aŕaio... mila... demonioa...



- MANU. Baña gizona ¿ze ari zera?
- JOXE. ¿Zer ari naizen? Jo batetik eta jo bestetik ia itoan emen nabil eta ¿zer nabilen galdetzen didazu? (Ateari eztenkada indartsuak sartuaz). To... to... to... Amaika mila demonio...
- PER. Bost pare ta erdi.
- JOXE. ¿E? (Permin'i serio-serio begiratuaz).
- PER. Baietz, baietz... aufera... aufera... Beste ekiñaldi bat eman zaiozu...
- JOXE. ¿Ze ekiñaldi arayo? Orain ikusiko dezute. (Aitu ta leyo-  
tik botatzera dioa. Guziok, altxata, galerazten diote)
- PATX. ¿Zer? ¿Amañ erreal aundi ordaindutako egaztia leyotik kanpora bota? ¡Orlako astakeririk...! Ekatzak onera. (Atea, serbiletan batean bildu beza, ta mai-gañean jafiaz, Joxe'ri esan bezaio) Jo emen. (Joxe'k indartez jo beza atea, zapaldu naiaz) Ik orain (Peñando'ri, ta onek ere jo beza) Orain ik (Manuel'i, ta jo beza) Orain nik (Jo beza) Onezkero txetuta egongo dek.
- DENOK. Ia, ia, ia...
- PATX. (Serbiletan kendu ta ikusiaz). ¡Araye pola, len baño gogorago zegok-eta...!
- PER. Au ez dek atea, gizona. Abarka zaren bat dek au.
- MANU. Au ezin jan liteke. ¿Utzita guazen?
- JOXE. Guazen, ¡zer arayo!
- DENOK. Guazen, guazen...
- PATX. Ni ez naiz beintzat onera geigo etoriko.
- MOR. (Guziak badijuatzela ikusiaz) E... e... e... ¿Ta ez al didazute pagatu beañ?
- MANU. ¿Guk? Atea jan zak nai badek.
- JOXE. Datoñen urtian beriz etoriko gaituk, ta ordurako xamurtzen badek pagatuko diagu.
- DENAK. ¡Ja, ja, ja, ja...! (Bijoaz).
- MOR. Zikotzak, alenak. Baseñitar maltzur, lukur, lotsagabeak... (Etxean sartu bedi).



### III

#### ANTON eta MIGEL

- ANT. (Bere adiskide Migel'ekin agertu bedi. Biak beltzez ederki jantzita datoz, txapel apain, esku-makila ta guzi. 50 urte inguru dituzte.) Ori jendez perian.
- MIG. Bai, bai. Gauñ dendariak nori saldu badute.
- ANT. Peria kendu ezkerro, gure baseñitañenak egin zuan.
- MIG. Nekazari gizajoak ere orelako lasai-aldi batzuek beañ dituzte. Beti baseñian sañtuta, neke-pian bizi balira, ernegatu egingo lirake.
- ANT. Naiz ezeñ saldu ez, eta naiz ezeñ ez erosi, perira datoz, eta zirkun-zarkun or dabilta, besterik ez bada, ia albookaren batean tragotxoren bat erortzen ote dan.
- MIG. Ori ondo da. Oyek perian batera ta bestera ibili añen, ezazula pensa protxurik ateratzen ez dutela. Gauza guzien balioak jakiten dituzte: gari, arto, zaldale, babañun, olo, añaenza, sagañ, gaztaña, intxauf, gazta, txekoñ, txerñ, ta gañeratikoak zenbaitean dabilzan eta igotzeko itxurarik duten jakiten dute, ta urangoan berak saltzera datozenean ez die iñorñ ziririk sañtuko, ez.
- ANT. Bai, gure baseñitaña zintzoa dezu; ori ala da. Baña... elizarako baño perirako graña geigo dula iruditzen zat oregatik...
- MIG. Etzera ondo ari, adiskide. ¿Elizara? ¿Noñ ikusten da geigo elizan, baseñitaña ala uri aundietako prañestu bigoteduna? Oraindik, Jaungoikoari eskeñak, piñ jokatzen du baseñitañak, piñ. Baseñitañak sinismena galitzen badu, guziok galduak gera. Oregatik baseñitañari lagundu beañ zaio, ez bere lanetan bakañik, baita bere sinismenari eusten ere. Gure baseñitañak eta zenbait pabñrikako langileak ez dira berdiñak, ez.
- ANT. Egia diozu. Gure baseñitañen arñtean beste langilien arñteko nasketa ta iskanbilak sañtzen badira, goñiak ikusi beañean izango gera.



- MIG. Oregatik bada nekazaria goratu bea' degu. Gure afe-  
tik igarotzen danean buruko txapela kenduko bage-  
nioke, ez genduke geiegizkorik egingo.
- ANT. Geitxo esango zenduan oregatik... Dana dala, afazoyaz  
itzegin dezu. Ekatzu bosteko ori. (Eskua emanaz).
- MIG. Gau' Santo Tomas-eguna degu ta ztxorixo-mufur bana  
jango ote genduke? Neri ez dit on aundirik egingo,  
baña egunari berea eman bea' zaio.
- ANT. Ondo diozu. Oiturai eutsi egin bea' zaie.

Santo Tomas'ko peria  
txorixua ta ogia

esaten da aspalditik. Jan dezagun bada guk ere mufur  
bana.

- MIG. Bai gizona. Ementxe be'tan, mai ontan. Neroni saftuko  
naiz sukaldera, txorixo ederenak aukeratuko ditut eta  
berealaxe ere-eraziko ditut. Ikusiko dezu, ikusiko  
dezu.... (Saftuaz).

#### IV

##### ANTON. AZKENEAN LAPURÁ

- ANT. Bai neri orlakoxe ezerezkeriak jatea gustatu. ¡A ze' zef  
panpantxo polita egingo degun toki ede' ontantxe!  
Migel eto'ri bitartean zefbait iraku'ri dezagun. Ia gau'ko  
eguneroko onek ze' dion. (Egunerokoa atera beza zakele-  
tik, eta betaufekoak jafiaz, oen kajatxoa zakelean saftu beza.  
Txapela ta makila utzi bitza esef'toki baten gañean. Egunerokoa  
goratuta, afean ze' gef'tatzen dan ikustea galerazten diola  
iraku'ri bea' du. Iraku'tzen ari dala, Lapurá ageftu bedi; brusa  
luze bat daka' jantzita; manga bat lotuta, besa-motzat oi duten  
bezela, eta beste eskuan, mutuak oi duten txiliña. Ixil-ixilik  
gef'turatuko da Anton'engana, ta au iraku'tzen ari dan bitar-  
tean, kenduko dizkio eflejua, sudur-zapia, petaka, kaftera, be-  
taufekoen kajatxoa, ta esef'toki-gañean utzi zituan esku-makila  
ta txapela. Guziak brusa-azpian gof'deko ditu, gauza bakoitza  
ikustean ta batez ere kafterako diru-paperak ikustean poz



aundia afitzen duala erakutsiaz.) Gutxi gora-bera betikoa esango du onek ere.... Emen politika.... ¡Betikoa! Agintzen dutenak txarrik; zai daudenak onak. Emen beñiz alako ezkondu dala, alako ezkonduko dala.... Alako ta alako ere pozik ezkonduko lirakela esan beñ luke. Auferaxego jolasak.... Nazkagarri zait sail auxe. Ostikalariak partidu bat dutela, ta ilabetez aurretik eta ilabetez atzetik oñezaz itzegiten. Ume-koxko batzuek korika-apostua dutela, ta zoñtzi egunean ori esaten. ¡Zorioneko jolasak! Ara emen eñietako beñiak: bazkaria izan dala... gurdiak aur bat azpian arñu duala... kalean lokatza dagola... alako joan dala ta bestea etoñtzeko dala.... Betikoa; ainbeste papeñ eta gauza beñi gutxi. Beñitxukeria ugari.... (Egunaria goñdetzen asitakoan, lapuñ ikusten du ) Au ere noñbait badiagu. ¿Gizon onek zeñ ote dakañ onera? Traste txararen itxura dauka beñtzat. (Lapuñ goñturatuko zaio, ta beso motza ta txintxarria erakutsiko dizkio, mutua dala adierazi naiaz.) ¿Zeñ biazu? (Lapuñak keñuz esan bezaio mutua dala ta eskean dabiñela, Anton'ek ere keñuz erantzun bezaio, ta pixka batean orñla itzegiñaz egon bitez, pañ-eragiteko eraz. Azkenean Anton'ek zeñbait eman bezaio, ta mutua joan bedi, bere laguna ondo engañatu duala adieraziaz.)

## V

### ANTON eta MIGEL

**MIG.** ¡Bapo! ¡Auxen da lukainka goxoa. (Ogi ta lukainka-puskakin ontzi bat dakañ eskuan).

**ANT.** (Betauñeak goñdetzen asten danean, kajatxoa palta duala ikusten du. Gero, erñloju, petaka, ta guñtiak eraman dizkiotela igarñtzen du). ¡Au da lana! Esku-pañuelua, erñlojua, antiojuen kaja, petaka eta ogei ta amabost duruakin nuan karñtera kendu dizkiate. Noan, noan, lapuñaren bila. (Txapela ta makila arñtu nai ditu, bañña oek ere palta). ¿Nere txapela ta bastoia nun dira? ¿Oek ere bai? Dena, dena, lapuñtu dirate. ¿Noñ izan ote da? Emen egon naizen



bitartean arako besa-motz mutu ura besterik emen ez da inor agertu. Iruditu zait bai, irakurtzen nagoala nozbait nere soñean atzaparka bezela zebilela.... Aretzek ostuko ziran.... Banua, banua, beraren bila....

MIG. Baña gizona, ¿zeñ pasa zatzu? Jan zazu ogia ta txorixua oztu baño lenago.

ANT. ¿Zeñ jan beñ det, gizona? Txorixua ta ogia jateko gogua kendu zaizkit neri.

MIG. ¿Baña era oñetan joan biazu? ¿Buru-utsik eta eskuetan ezeñ gabe? Laga zaiozu, gizona; prótxu on deiola zuri ostu dizunari. Jan zazu soseguz ogi ta txorixo gozo au, eta gero ere zuri ostu dizkizuten gauza oyek osatuko dira.

ANT. Préskoa zera oñatik zu. ¿Eta ogeita amañ duruak?

¿Eta nere petaka edeña? Banuala... banuala....

MIG. ¿Baña nora joan biazu, gizona?

ANT. ¿Nora juango naiz? ¡Zakuñaren gelara...! Lapuñaren bila (Bijoa) eta ¡ai! atzapar-artean arapatzen badet....

## VI

### MIGEL

MIG. ¡Gauza zelebria gertatu zayo oñegatik nere adiskide gizajoari, ni bafenen txorixuak prejitzen ari nitzan bitartean! ¡Alajaña! Soñean zeuzkan gauza guziak ostu! Lo egongo zan, bestela, ainbat gauza ostu baño lenago, oroitu beñ. Txapela, bastoia, erlojua, esku-pañuelua, petaka, antiojueñ kaja ere bai, eta guzien gañetik ogei ta amabost duro. ¡Lapuñtxo oñek oñegatik gauñ ez dik joñnal txaña atera! Dana dala, jan dezadan beintzat txorixo-muñ bat, oztu baño lenago .. ¡Bai, gizona! Oraindik aundiagoa ere entzun beñ diagu...

## VII

### MIGEL, JOXE-MARI, MIKELA, MUTILAK eta BASEÑITAK

(Migel jaten ari dan bitartean, mutiak iften bitez lenago bezela, txorixo ta ogia jaten, iskanbilaka, ta baseñitak ere bai itai,



sega, ta gañeratikoakin. Joxe-Mari ta Mikela ere ageñtu bitez: zaf-xamañak dira; Joxe-Mari eran-xamaña datoñ, eskuan makila duala; Mikela'k beñiz, pañdel txiki bat dakañ; besotik elduta datoñ.)

- MIK. Baña Joxe-Mari, ¿etzera lotsatzen jendeak zeñ esango duan? Otsemazu, gizona, estaziora, onezkero írena Tolosa-aldera laister ítengo da-ta.
- J. M. Ez dago pñesarik, emakumea. Etxerako zeñbait erosi biagu.... Joñai batek oso palta egiten digu.
- MIKE. Bai, polita zaude zu trátuan asteko. Bat balio badu, lau kenduko lizuteke.
- J. M. ¿Neri? Eztago Donosti'ko plazan neri ziririk sañtuko diranik. Igaz ere makiñatxobat erosi nituan baña, etxera joan nitzanian oso meñke erosi nituala esan zirazuten.
- MIKE. Igaz etzenduan oñdea oñelakorik atxitu.
- J. M. Igaz ere, auñten bezela, bapo jan da edan egin genduan bada.
- MIK. Auñten oñdea bonbila aunditxoa atera digute, ta an egon zera txuñut eta txuñut dena agoñtu arñte. Gero beñiz kapearekin ere txuritik geitxo egin dezu, eta ona zeñ geñtatu zaitzun...
- J. M. Urñtean bein oñelakoxe bat añapatzea, ez da pekatu aundia, ¿e, Mikelatxo?
- BAS. I. Kaxo Joxe-Mari. ¿Oraindik emengo aldi?
- J. M. Bai, gizona. ¿Etxera joateko zeñ presa añano daukat ba nik?
- BAS. I. (Serio ta geldi-geldi) Joxe-Mari: ori da pulamentua, ori. Añapatzekotan, oñelakoxeak añapatu beañ dira.
- J. M. ¿Zeñ egingo degu, ba, Tibuñtxio? Urñtean bein, ta kito.
- MIK. Guazen, Joxe-Mari, guazen ...
- MUT. (Kantatuaz).

Santo Tomas'ko peria  
txorixua ta ogia;  
lapuñak ere badabiltz-eta  
ondo iriki begia.



- BAS. II. Izan ere... Lapuñak dabiltzala, ori bai dala egia. ¿Neri aizkora bat ez dirate bada lapuñtu?
- BAS. III. Neri guafdasola.
- BAS. IV. Neri pañila.
- BAS. V. Neri padera.
- BAS. VI. Neri soñta bat pilomen.
- BAS. II. ¿Noñ ote da oñlako lapuñta?
- BAS. III. Etzekiat nik baño, oñ ikusi diat esku-maingu bat, blusa luze batekin, eta añk etzikan kñristau onaren añpegirik.
- BAS. IV. ¡Bai! ¿Nola nai dek esku-maingu bat lapuñta izatea? Guri ainbeste gauza ostu dizkiguna ez dek ez maingua; esku azkafekoa dek ura.
- BAS. III. Etzekiat ba; paperak ere egiten dira; maingua dala uste ta bi eskuak edeñki askatuak edukitzea geñtatu izan dek.
- MIKE. ¡Ayene! Neri ere esku-maingu batek limosna eskatu dit, eta eñeparatu diot soñetan atzapañka dabilela. (Poltxikuetan begiratuaz ) ¡Ai nere Amabiñjiña Arantzazukoa! ¡Ai, ai, ai...!
- J. M. ¿Zeñ dezu, emakumea?
- MIKE. ¡Ai, ai, ai...! ¡Nere poltxatxua, nere poltxatxua, nere poltxatxu edeña! Etxera joateko bilete ta guzti lapuñtu dirate. ¡Ai Joxe-Mari! ¿Orain etxera nola joan biagu? Etzaitez estutu, atxua... Trabeña oñtantxe apaldu ta lo egin, eta biañ goiz irten, eta gauerako etxera joko degu.
- J. M. ¿Eta aparia zerekin pagatu biazu?
- MIKE. ¿Ez ote dizu zeñbait utzi? Ia begiratu ezazu ondo práti-kara oñetan.
- J. M. ¡Zeñ utzi beañ ziran! Emen ez dago aize utsa besterik.
- MIKE. Ba... aize utsak apaltzeko alimentu gutxi dauka.
- J. M. ¡Ayene! Au ere guri geñtatu beañ zitzaigun.... (Kanpuan gafaxiak entzuten dira: «¡Lapuñta, lapuñta!», ta guziok ara begira jañi bitez.)
- BAS. II. ¡To! An zijoak kofika maingu bñusa luzea... Eta zela-doria eta kabañero bat bere ondoren. ¿Noñ ote da buru-utsik eta antiojuakin jañaitzen dion kabañero ori? (Kanpuan entzuten dira: «Oñtik, oñtik». «Kale oñtan sañtu da. » «Emen datoñ, emen datoñ...» ta oñlako gafaxiak )



BAS. III. ¡Ondo! Kabañeroak lepotik eldu zioK... Baita zelado-riak ere... Emen zekañtek, emen zekañtek... Ez dik ez, igesik egingo.

(Zalapañta kanpoan Bañura datoz. Txapel gabe ta betañfeak jañita dituala datoñ Anton, lapuñari belañfietatik eltzen diola. Lapuñá, «ai, ai, ai...» gañaxika. Zeladoria ta baseñfitarak, lapuñá jo naiz. Au, beti «ai, ai, ai...» ka.)

## VIII

### Lenguak, Anton, Zeladoria ta Lapuñá

ANT. ¿Ai, ai, ai, esaten dek? Atoñ onera. ¿Nun dituk nere ogei ta amabost duruak?

LAPU. Emen, emen.

ANT. ¿Nun, oñdea?

LAPU. Emen bañenen.

ZELA. Kendu zayogun bñusa au. (Kendu nai diote, bañio lapuñak alegiñak egiten ditu kendu ez dakioten. Azkenik, kenduko diote, ta an azalduko dira, koñputzean zintzilika edeñki jañirik, gero izendatuko diran gauza guziak.)

BAS. I. ¡Mutilak...! ¿Zeñ da au? ¡A zeñ denda! Onek ez dik mairik beañ bere gauzak erakusteko.

LAPU. ¡Ai! Garai onean etxera joan banintz, beste zakuñ ba-tek orain zaunka egingo liket.

ZELA. Ea, ea. Gauza oek guziak kendu egin beañ zaizkio. (Banaka, poliki-poliki kenduaz). Onoko guañdasol au ¿no-rena da?

BAS. III. Neria, neria. (Eman bezaio )

ZELA. ¿Eta beste au?

BATEK. Neria, neria.

ZELA. ¿Eta bastoi au?

ANT. Ori neria.

ZELA. ¿Eta aizkora au?

BAS. II. Neria ori.

ZELA. ¿Eta beste au?



- BATEK. Neria, neria...
- ZELA. ¿Pañila au?
- BAS. IV. Neria; gabonetako bixigua erosteko erosia.
- ZELA. ¿Kate oek?
- BATEK. Bat neria; bestea onena
- ANT. Baña nere ogeita amabost duruak ¿nun dira?
- LAPU. Emen, kolkuan.
- ZELA. (Eskua kolkuan sartu bezaio ) Esku-pañuelo au ¿norena da?
- ANT. Ori neria.
- ZELA. ¿Antiojuen kaja au?
- ANT. Ori ere neria. (Antiojuak kendu ta kajañ sartu bitza).
- ZELA. Kartera bat.
- ANT. Neria... neria. Ia ogei ta amabost duruak emen dauden... Bai, bai, emen zeudek. Ala ere, gaitz erdi.
- ZELA. ¿Portamonera au?
- MIKE. ¡Ayene! Ori neria. (Artu ta ikusiaz.) Emen daude, emen daude nere bilete eta diruak...
- J. M. ¡Arayo zitala! ¿Nere atxuaren poltsa nai altzenduman?
- ZELA. Soñta bat eretxin.
- BAS. VI. Neria. Baña ez da eretxiña, pilomena da; elizan animen suprajioan eretzeko pilomena.
- J. M. ¡A zeñ mesedia egin dizuten karğa ori guzia gañetik kenduta! Orain ariñago zaude kartzelara juateko.
- ZELA. ¿Geiago badezu?
- LAPU. (Asañe) Bai, suduñra.
- MUTIL BAT. Neria, neria.
- LAPU. ¡Arayo beltza! ¿Nere suduñra irea al dek? Ostiko bat...
- BESTE MUTIL BAT. Neria, neria...
- LAPU. ¡To ba, irea bada! (Ostikara bat emanaz).
- MUT. ¡Ai, ai, ai...!
- ZELA. Sekulako lapuñetak egin dituzu, ta ¿oraindik ain arõ zaude? ¿Lotsarik ez aldezu?
- LAPU. Banuan baña, lotsa ere beste gauza guziakin kendu egingo ziazuten. Larua besterik ez dirazute utzi-ta...
- ANT. Ori ere kentzea merezi dezu.
- LAPU. (Bat-batean.) Orain utzi neri orõko jente ori itz bat esaten.



Gezurik esan gabe  
ara emen egia:  
oso gaizki iften zait  
aurtengo peria.  
Beste urte batian  
nai nuke obia. ...  
ofela bukatu da  
gure komeria.

(Mutilak, «Santo Tomas'ko peria» kantatuaz iften bitez, eta aien  
ondoren guziak).

ZAPIA JETXI BEZATE



EUSKO-ETXEA







# I Z A R A

Antzerki-saia



Colección de comedias

## AGERTUAK

- 1.<sup>a</sup> : *Jauregi-errotako astoa* Alfonso M.<sup>a</sup> Zabala'k asmatutako bakafizketa. (N.<sup>o</sup> 1. Monólogo original de A. M. de Zabala)..... 0,50
- 2.<sup>a</sup> : *Uruti-ixketa*. A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoak bakarik egitekoa. (N.<sup>o</sup> 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. Zabala)..... 1,00
- 3.<sup>a</sup> : *Melitona'ren bi senařak*. A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 3. Comedia en un acto, para hombres solos, A. M. de Zabala)..... 1,00
- 4.<sup>a</sup> : *Mendibe'taren lařiyak*. A. Lafaitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz)..... 1,00
- 5.<sup>a</sup> : *¡Utxi beařko!* Deñoka'tař Goserio'k euskeratutako antzerkia. Gizonezkoentzat. Atal batean. (N.<sup>o</sup> 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goserio de Deñoka) ..... 1,00
- 6.<sup>a</sup> : *Neskame beřia*. Emakumezkoentzat bakarik, atal bateko antzerkia Deñoka'tař Goserio'k euskeratua. (N.<sup>o</sup> 6. *La criada nueva*. Comedia en un acto para mujeres solas, adaptada por G. de Deñoka) 1,00
- 7.<sup>a</sup> : *Gizon bikařak*. Gizonezkoentzat, atal batean. Deñoka'tař Goserio'k euskeratua. (N.<sup>o</sup> 7. Comedia para hombres, en un acto) 1,00
- 8.<sup>a</sup> : *Třipa-Zořia*. Gizonezkoentzat, atal batean, Toribio Lafa'a'k eraturutako antzerkia. (N.<sup>o</sup> 8. Comedia en un acto para hombres, por Toribio de Lafa'a)..... 1,50
- 9.<sup>a</sup> : *Mořoi jatořa*. A. Lafaitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 9. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Lafaitz)..... 1,00
- 10 : *Gau-ostatua*. Iruretagoyena'tař J.'ren antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.<sup>o</sup> 10. Drama en un acto, para hombres solos, por J. de Iruretagoyena) ..... 1,50



- 11 : *Gizatzaña*. Manuel Rekondo'k egindako antzerkia. Atal batekoa ta emakumezkoentzat. (N.º 11. Sainete en un acto, para mujeres solas, por M. Recondo)..... 1,00
- 12 : *Perira*. Manuel Rekondo'k egindako bakafizketa. (N.º 12. Monólogo, por M. Recondo)..... 1,00
- 13 : *Trapu-Biltzalea*. Manuel Rekondo'k emakumientzat bakafik egindako antzerkia. (N.º 13. Comedia para mujeres solas, por M. Recondo)..... 1,00
- 14 : *Urdinburu'ko Biñor*. Etxeberria-Tolosa'tar J. P.'k egindako bakafizketa. (N.º 14. Monólogo, por J. P. de Echeberria-Tolosa)..... 0,50
- 15 : *Exei ex ta festa*. Toribio Alzaga'k antolatutako jostirudia. (N.º 15. Juguete de M. Soroa, arreglado por Toribio de Alzaga). ..... 1,50
- 16 : *Txibiribiri*. Toribio Alzaga'k asmatutako antzerki ifitsua. (N.º 16. Comedia en un acto, por Toribio Alzaga)..... 1,50
- 17 : *Beñaiño'ren lariyak*. Toribio Alzaga'k asmatutako antzerki ifitsua. (N.º 17. Comedia en un acto, por Toribio Alzaga)..... 1,50
- 18 : *Amantri*. Toribio Alzaga'k asmatutako bi ataldun antzerkia. (N.º 18. Comedia en dos actos, por Toribio Alzaga)..... 2,00
- 19 : *Periyaren zalapañtak*. Alfonso Zabala'k asmatutako antzerki ifitsua. (N.º 19. Sainete en un acto, por Alfonso Zabala)..... 1,50